

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

1426

EBAZPENA, 2025eko martxoaren 12koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, emisio gutxiagoko ibilgailuetan inbertsioak egiteko laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzen, haien deialdia egiten eta argitaratzen dituen.

Energiaren Euskal Erakundea Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa dugu, eta bere gain hartzen ditu aurrezpena eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzera bideratutako jarduerak, betiere Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Horri dagokionez, 2030erako 3E-2030 Euskadiko Energia Estrategian bildutako helburuak betetzera bideratutako zenbait ekintza garatzen ari da Energiaren Euskal Erakundea. Jarduera horien artean aipatzekoak dira aurrezpena eta energia-efizientzia, eta instalazio eta eraikinetan energia berriztagarriak erabiltzea helburu duten laguntza-programak, eta, horrekin batera, energia-kontsumoa arrazionalizatzea eta garraioan eta pertsonen mugikortasunean petrolioarekiko mendekotasuna murriztea helburu dutenak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean.

Illo horretan, 2030erako 3E2030 Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan gauzatutako Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren helburuei jarraikiz, Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Sailaren misioa energia-kontsumoan efizientzia areagotzen laguntzea da, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorragoa, jasangarriago eta seguruagoa izan dadila lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziarako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

Ondorioz, laguntzen programa hau garraioaren ingurumen-inpaktua murriztea helburu duten ekintzak sustatzeko lehentasunezko helburuarekin diseinatu da, salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasun efizientearen energiaren kontsumoaren arrazionalizazioa eta petrolioarekiko mendekotasuna murriztea helburu duten ekintzak sustatzeko helburu nagusiarekin, garraiatzeko modu efizienteagoetarako transferentzia, energia berriztagarrien erabilera eta energetikoki efizienteagoak diren teknologien erabilera erraztuz, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Energiaren Euskal Erakundearen zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarrenaz aldatzen duen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, emisio gutxiagoko ibilgailuetan inbertsioak egiteko laguntza-programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea, programaren edukia ebazpen honi eranskin gisa eranstean zaiolarik.

Bigarrena.— Dirulaguntzen araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 8.3 artikuluari jarraikiz, emisio gutxiagoko ibilgailuetan inbertsioak egiteko laguntza-programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2025eko martxoaren 12a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR.



ERANSKINA

Emisio gutxiagoko ibilgailuetan inbertsioak egiteko laguntza-programa

Oinarriak

- 2025. urtea -



Emisio gutxiagoko ibilgailuetan inbertsioak egiteko laguntza-programa

1. Programaren xedea eta laguntzaren izaera

- 1.1. 3E2030 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan gauzatutako Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren helburuei jarraikiz, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren misioa energia-kontsumoan efizientzia areagotzen laguntzea da, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorragoa, jasangarriagoa eta seguruagoa lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziarako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

Horregatik, garraioaren ingurumen-inpaktua murriztea helburu duten ekintzak sustatzeko lehentasunezko helburuarekin, emisio gutxiagoko ibilgailuetan inbertsioak egiteko laguntza-programa hau argitaratzen da (aurrerantzean «**laguntza-programa**»), zeinak salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasun efizientean energiaren kontsumoaren arrazionalizazioa eta petrolioarekiko mendekotasuna murriztea helburu duten ekintzak sustatzeko helburu nagusia duen, garraiatzeko modu efizienteagoetarako transferentzia, energia berriztagarrien erabilera eta energetikoki efizienteagoak diren teknologien erabilera erraztuz, Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurraldean (aurrerantzean «**EAE**»).

- 1.2. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean «**DLO**») 8.1 artikuluan xedatutakoaren eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen (aurrerantzean, «**20/2023 Legea**») 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EEEren Zuzendaritza Kontseiluak 2025eko otsailaren 5ean egindako bileran 2025-2028 urteetarako EEEren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Laguntza programa honek honako helburu hauek lotzen lagundu nahi du:

- ☐ Dirulaguntza jasotzea espero den ibilgailu kopurua: 1.500
- ☐ Emisioen murrizketa: 1.750 t CO₂/urteko
- ☐ Energia-aurrezpena: 683 tep/urteko

- 1.3. EEEren 2025erako Dirulaguntza Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx>

- 1.4. Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.

- 1.5. Laguntza-programa hau zein programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 107. artikuluko 3. apartatuan xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuetsirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharrak.

Dirulaguntza-programa honetan aurreikusten diren dirulaguntzak, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (UE) 2023/2831 Erregelamenduaren barruan daude, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz, minimis laguntzez diharduena, (aurrerantzean «**2023/2831 Erregelamendua**») eta, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (UE) 2023/2832 Erregelamenduaren barruan ere, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei ematen zaizkien minimis laguntzez diharduena (aurrerantzean «**2023/2832 Erregelamendua**»).

- 1.5. Laguntza-programa honen xedeetarako eta 2023/2831 Erregelamenduan araututakoari jarraikiz:

- Enpresatzat ulertzen da jarduera ekonomiko bat egiten duen edozein entitate, haren izaera juridikoa eta finantzaketa-modua edozein delarik ere.
- Enpresa bakartzat ulertzen da elkarren artean gutxienez lotura hauetako bat duten enpresa guztiak:
 - a) Enpresa batek, beste enpresa baten akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak dauzka;
 - b) enpresa batek beste sozietate baten administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-organoko kide gehienak izendatu edo kargutik kentzeko eskubidea dauka;
 - c) enpresa batek beste bat mendeant hartzeko eskubidea dauka, harekin egindako kontratu bati edo bere estatutuetan edo bere eraketa-eskrituran dagoen xedapen baten klausula bati jarraikiz;



d) enpresa batek, beste baten akzioduna izanik edo beste bati elkartuta egonik, bakarka kontrolatzen du, bigarren enpresako akziodun edo bazkideekin egindako akordio bati jarraikiz, haren akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak.

Beste enpresa baten edo batzuen bitartez a) letratik d) letrara bitartean barne hartzen diren harremanetako edozein daukatenak ere hartuko dira enpresa bakartzat.

2. Onuradunak

2.1. Laguntza-programa honen xede diren dirulaguntzak eskuratzeko aukera izango dute:

- a) Izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek, EAEn bizi badira edo egoitza sozial eta fiskala bertan badaukate.
- b) Egoitza soziala eta fiskala EAEn ez izan arren, Autonomia Erkidego horretan (i) beren jarduera garatzen duten, (ii) egoitza bat duten, eta (iii) beren plantillaren zati bat Autonomia Erkidego horretan duten pertsona juridikoek; hori guztia, gutxienez, laguntza-deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean, «**EHA**») argitaratzen den egunaren aurreko bi urteez geroztik.

2.2. Honako hauek ezin izango dira onuradun izan.

- (i) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartutako azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduko (aurrerantzean «**DAO**») 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenak.

Testuinguru horretan, azken hartzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez daukala, edo, bidezko bada, betebeharrak bete izana, egiaztatzen duena, 21. artikuluko horretan ezarritakoari jarraikiz.

- (ii) DLOaren 13.2 eta 13.3 artikuluetan eta 20/2023 Legearen 13.1, 13.2, 13.3 eta 13.4 aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.

Zirkunstantzia hauek betetzen direla kreditatzeko eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzei buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzei buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, 20/2023 Legearen 13.6tik 13.9ra artikuluan eta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Araudiko (aurrerantzean «**DAO**») 22 bis eta 23. artikuluan. Testuinguru horretan, aurrez aipatutako bi arauak halakorik ahalbidetzen dutenean, aurreko paragrafoan adierazitako artikuluetan deskribatutako zirkunstantzietan ez daudela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango dute eskatzaileek.

Horri dagokionez, zerga-arloko Administrazioan, Gizarte Segurantzaren Administrazioan edota gaituta dagoen eta zirkunstantzia horiek betetzen direla egiaztatzeko prozedura tramitatzen den bitartean beharrezkoa den Administrazioen arteko beste edozein elkarreragingarritasun-zerbitzutan kontsultatuko du zuzenean informazioa EEEK. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- (iii) Horrez gain, eta onuradunak jarduera ekonomikoa garatzen baldin badu:

a) DLOaren 13.3bis artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.5 artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.

b) EBk ezarritako zigorren eraginpean dauden enpresak, besteak beste, honako hauek:

- Zigor horiek agintzen dituzten egintza juridikoetan espezifikoki izendatutako pertsona, entitate edo erakundeei dagozkien zigorak,
- EBk hartutako zigorren xede diren pertsona, entitate edo erakundeen kontrolpean dauden edo horien jabetzakoak diren enpresei dagozkien zigorak, edo,
- EBk hartutako zigorren eraginpeko industrietako enpresa aktiboei dagozkien zigorak, laguntzak dagozkien zigorren helburuen kalterako diren neurrian.

c) 2023/2831 Erregelamenduaren eta 2023/2832 Erregelamenduaren 1. artikuluan adierazitako sektore batean edo batzuetan diharduten enpresak.



d) Aldez aurretik eman dieten edozein laguntza edo dirulaguntza berreskuratzeko agindu bat betetzeke duten enpresak, laguntza legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo delako edo emakidan esleitu zieten edozein betebeharren edozein motatako urraketa egin dutelako.

e) Herrialde Pobretuekiko Euskal Autonomia Erkidegoaren Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea sozietatearen helburu edo jardura guztia edo zati bat den enpresak.

f) Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean erori diren haiek.

2.3. Laguntza-deialdi honen eremutik kanpo geratzen dira esanbidez:

- Ezin izango dira onuradun izan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren **Kontzesionarioak edo Saltoki** gisa eraturako eskatzaileak eta tarifen lehen ataleko 615.1 edo 654.1 epigrafea dutenak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifikak eta instrukzioa onartzen dituen irailaren 28ko Legegintzako 1175/1990 Errege Dekretuak ezarritakoa betez.

- 2024ko abenduaren 31ren ondorengo datan erroldatutako pertsona fisikoak.

3. Aurrekontu-zuzkidura eta eskaerak aurkezteko epea

3.1. 2025eko ekitaldirako Euskal Energiaren Erakundearen (aurrerantzean «**EEE**») aurrekontuetan horretarako ezarritako dagokion kredituaren arabera **bost milioi (5.000.000,00) euro da** laguntza-programa honetarako bideratutako diru-zuzkidura totala, aurrekontu hori Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025erako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024ko Legearen bidez onartu zelarik (2024ko abenduaren 30eko 252. zenbakiko EHAA).

Programaren aurrekontua % 70 handitu ahal izango da, salbuespen gisa, eskariaren eta dirulaguntzako jardueren garapenaren arabera, baldin eta helburu horretarako aurrekontu-eskuragarritasunik baldin badago, eta betiere haren indarraldi-epea ez bada iraungi.

3.2. Laguntza-programa honetarako laguntza-eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean «**EHAA**») argitaratu eta hurrengo laneguneko 08:00etan hasiko da, eta Laguntza Programan horretarako bideratutako aurrekontua agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, aurrekontu eskuragarriarik egon zein ez, laguntza-eskaerak aurkezteko epea **2025eko irailaren 15ean** amaituko da, deialdian aurrekontu eskuragarriarik balego ere. Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez dira eskaera gehiago onartuko.

Aurrekontu erabilgarria agortu dela iragarriko da EEEko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, EHAA n zein EEEren Interneteko helbidean: www.eve.eus.

3.3. Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean «**39/2015 Legea**») 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

3.4. Jada aurkeztuta dauden eskaerak –ongi egindakoak eta osoak izanik eta tramitazio-fasean egonik– esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortu delako ezin badira erantzun, ezetsi egingo dira arrazoi hori dela-eta, EEEko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.

4. Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta laguntzen zenbatekoa

4.1 I. eranskinean zerrendatutako jarduerak diruz lagundu ahalko dira, betiere eskatzaileek EAEko lurraldean burututakoak badira eta emisio gutxiagoko ibilgailuetako inbertsioak badituzte helburu.

4.2 I. eranskinean barne hartuta daude diruz lagun daitezkeen kostua eta onuradunek jaso beharreko laguntzen zenbatekoa zenbat izango den.

4.3 Honako baldintza hauek betetzen dituzten jarduerak bakarrik onartuko dira: beren izaera edozein delarik ere (konturako kopuruen ordainketa edo beste edozein kontzeptukoa barne) 2025eko apirilaren 1etik aurrera jaulki diren faktura eta ordainketa-egiaztagiriak.



5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak

5.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra laguntzaren azken hartzailearen arabera

4. oinarrian eta I. eranskinean aipatutakoa betez.

Era berean, 2023/2831 Erregelamenduari dagokionez eskatzaileak enpresa gisa hartzen badira, aldeztu aurretik adierazitako apartatueta aurreikusitako izaera orokorreko mugapenez gain, aplikagarriak izango dira honako hauek finkatutako dirulaguntza-mugak:

- a) 2023/2831 Erregelamendua eta,
- b) 2023/2832 Erregelamendua.

Horrenbestez, enpresa gisa hartzen diren eskatzaileei ezarritako mugapenak bat etorriko dira 2023/2831 Erregelamenduari eta 2023/2832 Erregelamenduari 3.2 artikuluetan adierazitakoarekin:

- ☐ Enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen kopuruak ez du gaindituko 300.000 euroko kopurua hiru urteko edozein alditan.

☐ Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituen enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen kopuru osoak, betiere 2023/2832 Erregelamenduan ezarritako eskakizunak betetzen baldin baditu, ez du gaindituko 750.000 euroko kopurua hiru urteko edozein alditan. Zentzu horretan, laguntzaren eskatzaileak, 2023/2832 Erregelamendua bildu ahal izateko, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuaren emakida agindua edo esleitua izan beharko du, laguntza-eskaeraren erregistroa baino lehen, eta 2011ko abenduaren 20ko Batzordearen Erabakiaren 4. artikuluan bildutako baldintzetan (2012/21/EB). Erabakiak honako hau jasotzen du: interes ekonomiko orokorreko zerbitzuen kudeaketaz arduratzen diren enpresa batzuei emandako zerbitzu publikoagatik konpentsazio moduko estatuko laguntzei buruzko Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 106. artikuluen 2. apartatuko xedapenen aplikazioa.

5.2. Bateragarritasun-erregimena beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin

5.2.1. Laguntza-programa honen esparruan emandako laguntzak, helburu bererako eman daitezkeen beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin bateragarriak izango dira, edozein administrazioetik edo erakunde publiko edo pribatutatik datozenak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, baldin eta orokorrean, diruz lagun daitezkeen kostuaren % 70a baino txikiagoa edo berdina den laguntza-portzentaje bat osatzen badute.

5.2.2. Edonola ere, gainfinantzazioa saihestearren eta DLOaren 19. artikulua aplikatuz, bai eta 20/2023 Legearen 16. artikulua ere, emandako laguntzen kopuruak ezin izango du, isolaturik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

5.2.3. Beste erakunde batzuetatik datozen dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak EEEn aldetik dirulaguntza emateko ebazpenaren ondoren gauzatzen badira, onuradunak EEEn jakinarazi beharko dio, eta dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen multzoaren azterketatik ondorioztatzen bada aurrerakin itzulgarriaren zenbatekoa murriztu beharra, laguntza guztiz edo partzialki errebokatzeko dagokion ebazpenaren bitartez jakinaraziko da.

5.3. Diruz lagundutako jarduerak hirugarrenekin kontratatzea edo azpikontratatea

- a) DLOaren 29. artikuluan, DEOaren 68. artikuluan eta 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, onuradun bat azpikontratatzeko ari dela esaten da hirugarrenekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jardueraren egikaritze osoa edo partziala. Onuradunak diruz lagundutako jardueraren bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik at geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta diruz lagundutako jardueraren hirugarrenen azpikontratazio edo kontratazioarako, aipatutako DLOaren 29. artikulua, DEOaren 68. artikulua eta 20/2023 Legearen 31. artikulua horietan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatuko dira.

- b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan eta 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 euro, BEZik gabe, obretarako), laguntzaren onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu,



zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta dirulaguntza baino lehen egiten baldin bada gastua.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espreski justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

6. Tramitatze kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren arabera (aurrerantzean «91/2023 Dekretua»), laguntzen programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako gestioak) baliabide elektronikoen erabiliz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Elektronikoen egoitza elektronikoen «Nire karpeta» atalaren bitartez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>) eta Eusko Jaurlaritzaren Tramitagune tramitazio elektronikoko aplikazioa erabiliz, [euskadi.eus](https://www.euskadi.eus) webgunean eta EEEren web-orrian (www.eve.eus) erabilgarri dagoena. Hori guztia, pertsona fisikoaren kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa batean, tramitazioarako jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak daude eskuragarri, eta haren bitartez, eskaera-formularioan sartzen da; hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus> eta www.eve.eus

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duen edozein tramite edo dokumentu bitarteko elektronikoz aurkeztu bada, sinadura elektronikoa aitortu bat eduki beharko du, 91/2023 Dekretuaren 71. artikuluan xedatutakoaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen onartutako identifikazioa eta sinadura elektronikoko bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagirielektronikoak>.

Kanal elektronikoen bidez, eskaeraren ondorengo tramiteak, jakinarazpen eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikuluen arabera.

Eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoen aurkezteko. Horri dagokionez, eskaeraren aurkezpen-data edo -eguntzat hartuko da zuzenketa ongi egiten den eguna.

7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia

Eskaera bakar bat aurkeztu beharko da aurreikusitako edozein jardueratan laguntzaren xede izan nahi duen jardura bakoitzeko, hau da, laguntza-deialdi honek ibilgailu bakar baten dirulaguntza onartzen du izapidetutako laguntza-eskaera bakoitzeko.

Laguntza-eskabidearen formularioa eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa 6. oinarrian azaltzen den aplikazio informatikoaren bitartez egingo da (39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusten denaren kalterik gabe pertsona fisikoaren kasuan), eta 3. oinarrian adierazten den epearen barruan.

Eskaeren onarpenerako hautagarritasun-aldia dagokionez eta programaren 4. oinarrian ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko, faktura eta ordainketa-egiaztapen guztiak, edozein izaerakoak ere (konturatuko kopuruak ordaindu izana edo beste edozein kontzeptukoak) 2025ko apirilaren 1ekoa edo ondorengoak izatea eskatuko da.

Aurkezpen-ordenari zorrotz jarraituz aztertuko dira eskaerak, laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez 8.1 oinarriaren lehen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte.

Laguntza-eskaerarekin batera, oinarri hauen II. eranskinean aipatutako dokumentazio guztia aurkeztuko da, diruz lagundu nahi zaion jardura-motaren arabera. Nolanahi ere, EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.



8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

- 8.1. Laguntza-eskaeren ebazpenak ondoz ondoko lehiako prozedura baten bidez emango dira, diruz lagun daitekeen egoera edo jarduera badela eta eskatutako beste betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Eskaerak aurkezten diren ordenaren arabera aztertu eta tramitatuko dira, baina, hala ere, egokiro formalizatuta eta osatuta geratzen diren neurrian eta ordenan ebatziko dira.

Eskaera akastuna edo osatugabea izaki zuzendu beharko balitz, edo bestela, eskatzaileak espedienteari dokumentu gehiago erantsi beharko balizkio, laguntza-eskaera guztiz osatuta eta zuzenduta geratzen den data izango da ebazpena emateko konkurrentzia-data.

- 8.2. Laguntzen Arloa izango da, EEEko Garapen eta Berrikuntza Zuzendaritzaren barruan kokatua, espedienteen antolamendu eta kudeaketarako organo eskuduna.

Bere aldetik EEEko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igarotakoan ez bada esanbidezko ebazpenik eman, eskatzaileek ezetsizat hartu ahal izango dute beren eskaera, 20/2023 Legearen 22. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 39/2015 Legearen 25. artikuluan jasotakoaren ondorioetako, baina, hala eta guzti ere, EEEK egindako eskaeraren esanbidezko ebazpena eman behar du. Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>.

Ebazpenean honako hauek adieraziko dira esanbidez, 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan adierazitako edukiaz gain: (i) laguntzaren xede den jarduera, (ii) laguntzaren zenbatekoa (kopuru gordin gisa, laguntzaren onuradunaren izaeratik egokiak diren zerga-betebeharrak alde batera utzi gabe), (iii) interesgarritzat jotzen diren bestelako alderdiak eta (iv), hala badagokio, ukatzeko arrazoiak.

8.3. Ebazpen horren kontra, zeinak prozedura administratiboari amaiera ematen baitio, eskatzaileek hautazko birjartze-errekurtsoa jarri diezaiokete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluekin bat etorriz; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, «**29/1998 Legea**»).

- 8.4. Azkenik, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (aurrerantzean, «**19/2013 Legea**»), DEOaren 30. artikulua eta 20/2023 Legearen 15. artikulua diotenarekin bat etorriz, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEK bere Gardentasun Atarian eta Euskadiko Dirulaguntzen Erregistro Orokorrean (KKB Kontrol Ekonomikoko Bulegoari helaraztearen bidez) argitaratuko ditu programa honen emango diren dirulaguntzak, eta legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.
- 8.5. 20/2023 Legearen 34. artikulua aplikatuz, EEEK deialdi honetan aurreikusitako laguntzak onuradunei ordaintzea bertan behera uztea erabaki ahal izango du, edozein itzulketa-prozeduraren amaiera baldintzapean geratuko delarik, zeina, EAEko Administrazio Orokorra, bere Erakunde Autonomoek eta sektore publikoko entitateek emandako izaera bereko laguntze edo dirulaguntzen esparruan hasita egonik, oraindik ere izapidetze-aldian dagoen, etendura horrek ezein kasutan ez duelarik gaindituko diru-itzulketa espedientearen hasierarako proposamenak edo ebazpenak finkatzen duten diru kopurua, berandutze-interesekin.

9. Laguntzen ordainketa

- 9.1. Ezin izango dute laguntzaren ordainketa jaso EAEko Administrazioiko eta haren sektore publikoko edozein entitatek eta/edo EEEK emandako izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagozkien kopuruak itzultzeko betebeharrak betetzeke dauzkaten onuradunek. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertzeko, haxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako Administrazioarekiko zorrik ez izatea epealdi betearazlean dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo onuradunei zein erakunde laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrik ez izatea.



Era berean, onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (DEOaren 21. artikulua).

- 9.2. EEEko zuzendari nagusiak laguntza emateko ebazpena jaulki ondoren, eskatzaileak onuradun izateko aurreikusitako betekizun guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren, dirulaguntza ordaintzeari ekingo zaio, onuradunak xede horretarako adierazitako banku-kontuan.

10. Laguntzaren xede den jardueraren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea

Dirulaguntzaren xede den jarduera benetan gauzatu dela eta oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEEk beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du, dirulaguntzen erabileraren fiskalizazio-funtzioak baliatuz.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin erkatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEk dirulaguntza partzialki edo erabat errebokatzeko espedientea egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko eskatuko du, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

11. Onuradunen betebeharrak

Laguntza-deialdi honen bitartez arautzen diren laguntzen hartzaileek, betiere, betebeharrak hauek izango dituzte:

- DLOaren 14. eta 46. artikuluetan eta 20/2023 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoak.
- Dirulaguntza eman zaion helburu jakinerako erabiltzea.
- KEB - Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, HKEE Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, EEERI eta baita tokiko, estatuko edo Europar Batasuneko beste edozein kontrol-erakunderi (adierazgarri gisa, eta ez modu mugatzailean, Europar Batasuna, Iruzzurren aurkako Europako Bulegoa (OLAF), Europako Kontu Epaitegia eta Europako Fiskaltza) eta gai honetan eskumena duten erakundeei ematea beren funtzioak gauzatzean laguntza-deialdi honen kontura jasotako laguntzei buruz eskatzen dioten informazio guztia.
- EEERI, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.
- Jarduerak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jardueraren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, onuradunak onartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua guztiz bat datorrela indarreko araudi aplikagarriarekin, bai teknikoarekin, bai hirigintzakoarekin, bai beste edozeinekin.
- Egindako jarduera eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dagozkien jardueren xede izan daitezkeela kontuan hartuta, eta gutxienez hamar (10) urtean zehar laguntzaren emakidaren datatik zenbatzen hasita, 2023/2831 eta 2023/2832 Erregelamenduek xedatzen dutenaren arabera.
- Kontabilitate banandu edo bereizi bat izan beharko dute onuradunek laguntzako jarduerarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
- 20/2023 Legearen 30.4 artikulua aplikatuz, diruz lagundutako ondasunaren titularra izan beharko du onuradunak, dirulaguntza eman zitzaion datatik zenbatzen hasita bi (2) urteko epean gutxienez.

Era berean, laguntza-deialdi honen arabera diru lagundutako ibilgailu baten jabeak laguntza ematen zaion datatik zenbatzen hasita ibilgailua bi (2) urteko epean behar den baten bertsio berria egingo balu edo besterenduko balu, honako hau bete beharko du:

- Egiaztatu beharko du eta EEERen aurrean deklaratu erosle berriak betetzen dituela oinarri hauetan laguntzaren azken hartzaile izateko aurreikusitako betekizun guztiak.



- Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu, espresuki:
 - Ibilgailu hori emisio gutxiagoko ibilgailuetan inbertsioak egiteko EEEn laguntza-programaren xede izan dela.
 - Erosle berriak laguntzaren onuradunaren posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, aipatutako epea bete arte.
- EEEn jakinaraztea egindako besterentzea, formalizaziotik zenbatzen hasita gehienez hilabete bateko (1) epean.

Laguntzaren onuradunak aipatutako besterentzeari datxezkion eskakizunak betetzen ez baditu, jasotako laguntza guztia edo zati bat itzuli beharko du, kasuaren arabera.

- i. Dirulaguntzaren onuraduna enpresa bat denean, bere merkataritza-eragiketetan egin dituen gastuek (diruz lagun daitezkeen gastuez ari gara) aplikagarria zaion sektore-araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute, edo, bestela, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.
- j. 20/2023 Legearen V. titulua aplikatuz eta betiere diruz lagun daitezkeen jardura edo onuradunaren izaera dela-eta enpresa-deslokalizazio baten kasuan bagaude, onuradunak nahitaez bete beharko ditu adierazitako 20/2023 Lege horrek 48.-51. artikuluetan deskribatutako betebeharrak eta ondorioak.
- k. Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEEn, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betez eskatzen dion edozein informazioen berri ere.
- l. Informatzeko eta komunikatzeko egiten diren neurri eta ekintza guztietan, onuradunak Energiaren Euskal Erakundearen laguntzaren onuraduna dela aitortu behar du. Horretarako:
 - ☐ Paperean, webgune batean, app batean edo ikus-entzunezko euskarri batean egiten den ekintza orotan berariaz aipatuko da proiektuak dirulaguntza jaso duela laguntza-programaren barruan. EEEn logotipoa txertatuko da euskarri horietan. EEEn logotipoa EEEn webgunean egongo da eskuragarri, formatu bektorialean eta azken bertsio eguneratuenean.
- m. Laguntza-deialdi honen arabera diruz lagundutako ibilgailu baten jabeak ibilgailua zirkulazio-zergan (Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gainerako Zerga) alta emanda eduki beharko du EAEko udalerrri batean bi (2) urtetik beharako izango ez den epe batean. Baldintza hori betetzen ez badu, laguntzaren onuraduna jaso duen laguntza itzultzera behartuta egongo da.
- n. EEEn eskura jarriko da diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa, haren emaitzak hedatzeko asmoz, elkarrekin adostu ondoren.

12. Ez-betetzeak eta itzulketak

Deialdi honetan ezarritako eskakizunak eta gainerako arau aplikagarriak edo, kasuan-kasuan, dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedienteak ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek, eta dirua itzuli egin beharko zaio EEEn, berandutze-interesekin batera, eta hori guztia 20/2023 Legearen III. tituluarekiko xedatutakoari jarraikiz, dagozkion lege-egintza eta zigorrak alde batera utzi gabe.

Onuradunak jasotako kopuru guztiak edo batzuk itzuli beharko ditu oinarri hauetan hori ezartzen den kasuetan, eta 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritakoetan, eta, dirulaguntzen alorrari dagokionez, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte dagozkion berandutze-interesa eskatuko zaio. Eta helburua erabat betetzera modu esanguratsuan hurbildu delako dirulaguntza partzialki itzuli behar denean, eta onuradunak oinarri hauei jarraikiz bere konpromisoak eta betebeharrak betetzeko jardura nabaria egiaztatzen badu, programa honetan aurreikusitako xede eta helburuen betetze-maila hartuko da kontuan, betiere proportzionaltasun-irizpideen pean.

EEEn zuzendari nagusiak du errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularaztekoa.



13. Eskatzaileei informatzeari buruzko klausula

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
Tratamenduaren arduraduna	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) tel.: 94.403.56.00 harremana DPO: dpd@eve.eus
Helburua	- Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den harremanaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahal izango dira datuak.
Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea	- Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeko epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.
Emakiden hartzaileak	Kontrol-arloko eta 20/2023 Legearen 15.9 artikuluan aurreikusitako alorrean eta kasuetan eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatualak, edo Europar Batasunekoak.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEERi idazki bat bidaliz, « <i>datuak babesteko eskubideak egikaritzea</i> » adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikari daitezkeen neurrian.
	Interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus
Onuradun orok konpromisoa hartzen du, bere laguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan, eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEERi eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisikoa/juridikoa, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEERi datu pertsonalak behar bezala lagatzeko. Ordezkapena gauzatzeko, ordezkaria bere ordezkatuaren datu pertsonaletan sartuko da eta haren datu pertsonalak tratatuko ditu erabateko konfidentzialtasunez eta bidezkoak diren segurtasun-neurriak aplikatuz, prozedura kudeatzeko soil-soilik eta beste edozertarako erabiltzeko aukera debekatuta. Hirugarrenei ere ezin izango zaizkio jakinarazi, non eta haren ordezkatuak espresuki baimena eman ez dion. Konpromiso horiek mugagabeak dira, eta, horrenbestez, ordezkapena amaiturik ere jarraitzen dute indarrean. Ordezkariek segurtasun-arrakalen bat detektatzen badu EEERentzako datuen komunikazio-kanalean, EEERi jakinarazi beharko dio berehala.	

14. Azken xedapenak

- 14.1.** EEERen erabakiak izaera administratiboa du eta EEER kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
- 14.2.** Programa honetatik eratorritako laguntzen xede diren jardueretatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEER.
- 14.3.** Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren onuradunaren aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEER eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren onuradunaren erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.



14.4. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:

- ☐ Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17 38/2003 Lege Orokorrean bildutako oinarritzko manuak.
- ☐ 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
- ☐ Abenduaren 21eko 20/2023 Legea, dirulaguntzen araubidea erregulatzekoa.
- ☐ Batzordearen 2023/2831 Erregelamendua (EB), 2023ko abenduaren 13koa, minimis laguntzei buruzko Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa.
- ☐ Batzordearen 2023/2832 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei emandako minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.
- ☐ 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- ☐ 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
- ☐ 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.
- ☐ 2023ko otsailaren 13ko agindua, Ogasuneko sailburuarena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.
- ☐ Aplikagarri izan litezkeen tokiko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta/edo Europako gainerako araudi guztiak.



I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERAK, LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagun daitezkeen jarduerak

Laguntza-programa honen esparruan dirulaguntza jaso ahal izango du honako ibilgailu hauen erosketak: ibilgailu arinak, berriak edo erakusketakoak, M1 eta N1 ibilgailu-kategoriakoak, M1 kategoriako ibilgailuentzat 125 g/km-tik beherako CO₂ emisioekin eta 150 g/km-tik beherako emisioekin N1 kategoriakoentzat.

Kategoria	Deskribapena
M1	Lau (4) gurpilekoak, pertsonen garraiorea bideratuak, eta gidariaren eserlekuaz gain, gehienez zortzi (8) plaza dituztenak.
N1	Lau (4) gurpilekoak, salerosgaien garraiorea bideratuak eta 3,5 t-ko gehieneko masa gainditzen ez dutenak.

Dirulaguntza jaso dezaketen ibilgailuak elektriko puruak, hibrido entxufagarriak, autonomia zabaldukoak, hidrogenozkoak, petrolioaren gas likidotuen (PGL) bidez propultsatutakoak, gas naturalekoak, gasolinakoak edo gasoliokoak izan ahalko dira.

Erakusketako ibilgailu gisa hartuko dira **bederatzi hilabetera bitarteko antzintasuneko** ibilgailuak, lehen matrikulaziotik salerosketa-fakturaren data bitarteko aldia hartuta, eta ibilgailuaren titulartasuna kontzesionario batek edo laguntzaren eskatzaileari ibilgailuaren salmenta egiten dion fabrikatzailearen/inportatzailearen taldeko salmenta-guneak eduki beharko du. Kasu horretan, beharrezkoa izango da kontzesionarioak edo saltokiak ibilgailua fabrikatzaileari edo inportatzaileari ibilgailu berri gisa erosi izana.

Era berean, ibilgailu berriaren edo erakusketakoaren erosketa-jarduera diruz laguntzeko modukotzat hartzeko, **NAHITAEZKOA** da honako baldintza hauek betetzen dituen ibilgailu bat txatar bihurtzea:

- Laguntzaren eskatzailea ibilgailuaren jabea izango da, nahitaez.
- Ibilgailua 2025eko apirilaren 1etik aurrera txatar bihurtu egin beharko da.
- M1 edo N1 kategoriakoa izan beharko du. Txatar bihurtuko den ibilgailuaren kategoriak erositakoarekin bat etorri beharko du; M1 edo N1 (furgoneta-furgoneta edo auto-auto). Ez da baimentzen auto baten erosketa furgoneta baten txatar bihurtzearekin edo alderantziz.
- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga egiaztatu beharko da, EAEko udalerrri batean behar bezala ordaindua, gutxienez 2024tik; eta azkenik,
- Txatar bihurtutako ibilgailuak honako bi baldintza hauetako bat bete behar du:
 - a. 20 urteko edo gehiagoko antzintasuna eduki beharko du (lehen matrikulaziotik txatar bihurtutako data bitarte), edo
 - b. M1 kategoriako ibilgailuen kasuan 175 g CO₂/km baino gehiago isurtzea eta 200 g CO₂/km baino gehiago N1 kategoriako ibilgailuen kasuan.

Laguntzen zenbatekoa

Ibilgailu bakoitzeko 3.500 euroko laguntza ezarri da, nahiz eta eskuratutako ibilgailuaren kostuaren % 20ko gehienekora mugatuko den zenbateko hori (diruz lagun daitezkeen kostuez ari gara).

Diruz lagun daitezkeen kostuak

Aplikagarria izango da DLOaren 31. artikuluan, 20/2023 Legearen 30. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 83. artikuluan bildutakoa (azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua, Dirulaguntzen Orokorra, onartzen duena, (aurrerantzean «**DLO**»)).



Ez dira diruz lagun daitezkeen kostutzat hartuko:

- ☐ Inbertsioaren ondoriozko finantza-gastuak.
- ☐ Eta, oro har, argi eta garbi zehaztuta ez dauden eta laguntza-programa honetan aurreikusitako helburuak lortzeko zuzenean identifikatu ezin daitezkeen kostu guztiak.

Azkenik, tributuoak diruz lagun daitezkeen kostutzat hartzeari dagokionez, 20/2023 Legearen 30.8 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Erositako ibilgailuaren gehieneko prezioa

Ibilgailuaren erosketa-jarduera diruz lagundu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira ibilgailuaren gehieneko prezioari dagokionez:

- ☐ Erositako ibilgailuaren prezioak, M1 ibilgailuen kasuan ezin izango ditu 40.000 euroak gainditu (BEZa eta matrikulazio-zergak EZ daude barne hartuta).
- ☐ Hidrogenoko M1 ibilgailuen kasuan, gehieneko prezioa 75.000 eurora igotzen da (BEZa eta matrikulazio-zergak EZ daude barne hartuta).
- ☐ N1 ibilgailuen kasuan, ez da gehieneko preziorik aplikatzen.

Onuradun bakoitzeko mugak

Laguntza-programa honen esparruan, dirulaguntza, pertsona fisiko bakoitzeko, ibilgailu batek (1) jaso ahal izango du, gehienez, eta hiru (3) ibilgailuk laguntza eskatzen duen pertsona juridiko bakoitzeko. Era berean, 7. oinarriak xedatzen duen moduan, eskuratutako ibilgailu bakoitzeko laguntza-eskaera bat aurkeztu beharko da.



II. ERANSKINA

DOKUMENTAZIOA

Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira, testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe.

A.– Laguntza-eskaera egiteko eskatutako administrazio-dokumentazioa

- a) Laguntzaren eskatzailearen, eta, bidezko bada, eskatzailea legez ordezkatzeko duenaren NANaren/AIZren kopia, eskaera pertsona fisiko edo erakunde juridiko bat ordezkatzeko edo talde, elkarte edo erkidego bat ordezkatzeko aurkezteko ote den adierazita. NANaren kopia aurkeztea ez da beharrezkoa izango, baldin eta interesdunak espresuki uko egiten ez badiot EEEK haren nortasun pertsonaleko datuak kontsultatzeari. Bestetik, eskatzailearen IFZren/AIZren kasurako, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapenak administrazio publikoei eskumena ematen die beren esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeke, datu horien zehaztasuna egiaztatzearen.
- b) Eskaera lege-ordezkarari baten bidez aurkezteko bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du legez ezarritako baldintzetan eta ahalordetzeko eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko du. Eskaera sinatzen duenaren (lege-ordezkaria) NAN/ANZaren kopia ere aurkeztuko da.
- c) Eskaera ordezkari baten bidez aurkezteko bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du eta ordezkariak emateko dokumentua (www.eve.eus webgunean eskuragarri dagoena) aurkeztu beharko du, non laguntza-eskaera sinatzeko eta kudeatzeko baimena emango baitaio. Eskaeraren sinatzailearen (ordezkaria) NANaren kopia ere aurkeztu beharko da.

- d) Eskatzaileak edo haren lege-ordezkariek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, formulario telematikoa dagoena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren eskatzaileari dagokionez:

- ☐ Ez dagoela DLOaren 13.2, 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean.
- ☐ Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.
- ☐ Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez dagoela edo haiek itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduen 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Era berean, aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen bidez zigortua ez dela izan.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, apartatu honetan adierazitako terminoetan.

- ☐ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzei dagokionez eguneratuta dagoela, DEOaren 22. artikuluan ezartzen denez. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan DEOaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bitartez, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkionak salbu, laguntzaren eskatzaileak ekarri beharko dituen ziurtagiriak. Nolanahi ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan, aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeke.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzei buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzei buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.



- ☐ Ez duela jarduera edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32.ean xedatutakoari dagokionez.
 - ☐ Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, publikoak edo pribatuak izan, ez dagoela gainfinantzatua eta laguntza-eskaeraren helburua edo jarduera ez gainfinantzatzeko konpromisoa hartzen du (hau da, ez duela gaingintuko diruz lagundutako jardueraren kostua).
 - ☐ Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetakoa batean ez dela erori.
 - ☐ Jarduera ekonomiko bat egiten badu, EBk hartutako erabaki baten ondorioz ez dagoela zigortua, ez dagoela krisialdian, krisialdian dauden enpresen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Batasuneko Zuzentzauek ezarritakoaren arabera (Batzordearen Jakinarazpena, 2014/C 249/1, 2014ko uztailaren 31), aldez aurretik eman zaien edozein laguntza edo dirulaguntzaren gainean egiteko dagoen berreskuratze-agindu baten pean ez dagoela, laguntza legez kanpoko eta barne merkatuarekin bateraezina deklaratu delako, edo emakidan esleituta zetozkion betebeharren edozein ez-betetzegatik.
 - ☐ Jarduera ekonomiko bat egiten badu, sozietatearen helburu edo jarduera guztia edo zati bat ez izatea armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea (EAEko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea).
 - ☐ Honako hauek bermatzeko konpromisoa hartzen du:
 - o estatuko eta Europar Batasuneko arauak betetzea, honelako jardueri aplikatzekoak diren aukera-berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko betekizunei dagokienez.
 - o estatuan eta Europar Batasunean ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alorrean indarrean dauden arauak betetzea, eta
 - o Iruzuraren aurkako neurri eraginkor eta neurrizkoak aplikatzea laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-eremuan, pertsona fisikoentzat izan ezik.
- e) Eskatzailea titularra den kontuaren IBAN kodea egiaztatzeko banku-ziurtagiria. Kontu-zenbaki horretan ordainduko da azkenean ebatzitako dirulaguntza, laguntza-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak betetakoan eta eskatzailea onuradun bihurtutakoan.
- f) Dagokion lurraldeko foru-aldundiak jaulkitako egoitza fiskalaren ziurtagiria. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, eskatzailearen zerga-egoitzari buruzko informazioa. Edozein kasutan, egoitza fiskala EAEtik kanpo duten enpresentzat, eskatzaileak Nafarroako Foru Ogasunak edo Estatuko Zerga Agentziak jaulkitako ziurtagiria aurkeztu beharko du, dagokionaren arabera.
- g) Pertsona fisikoen kasurako, erroldatze-ziurtagiria, non eskatzailea EAEn 2024ko abenduaren 31 baino lehen erroldatuta agertuko baita. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, eskatzailea laguntzaren eskaeran adierazitako udalerrian erroldatuta ote dagoen egiaztatzen duen informazioa.
- h) Eskatzaileak Jarduera Ekonomikoen Zergan duen errolda-egoeraren ziurtagiria. Laguntza-eskaera aurkezteak loturik ekarriko du eskatzailearen baimena, organo emaileak modu zuzenean, ziurtagiri telematikoen bidez, hala dagokionean, laguntzaren eskatzailea alta emanda dagoen epigrafeak erakutsiko dituen informazioa lortzeko.



- i) Indarreko araudiaren arabera berdintasun-plan bat edukitzera behartuta dauden enpresentzat, plan horren kopia edo, hala dagokionean, EAEko Berdintasun Planen Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan (edo baliokidean) erregistratu eta bertan utzi dela ziurtatzen duen ziurtagiria. Guztira 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, emakumeen eta gizonen berdintasun-alorreko Estatuko Legerian ezarritakoaren arabera sexu-jazarpena edo sexu-arrazoiengatiko jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurrien ezarpena egiaztatzen duen dokumentua.
- j) Oinarri hauetako 2.1.b apartatuan aurreikusitako kasu espezifikorako, pertsona juridikoak, helbide fiskala EAEn ez izan arren, Autonomia Erkidego horretan (i) bere jarduera garatzen duela, (ii) egoitza bat duela, eta (iii) bere plantillaren zati bat Autonomia Erkidego horretan duela egiaztatzen duten dokumentuak; hori guztia, gutxienez, laguntza-deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren aurreko bi urteez geroztik.
- k) 2023/2832 Erregelamenduak aratutako interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei emandako minimis laguntzen erregimenera bildu nahi duten enpresen kasuan, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuaren emakida laguntzaren eskatzaileari esleitzen edo agintzen zaioneko ekintza juridikoaren kopia erakutsi beharko da. Agindu horrek laguntza-eskaeraren erregistroa baino lehen formalizatua izan beharko du, eta 2011ko abenduaren 20ko Batzordearen Erabakiaren 4. artikuluan bildutako baldintzetan (2012/21/EB). Erabakiak honako hau jasotzen du: interes ekonomiko orokorreko zerbitzuen kudeaketaz arduratzen diren enpresa batzuei emandako zerbitzu publikoagatik konpentsazio moduko estatuko laguntzei buruzko Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 106. artikulua 2. apartatuko xedapenen aplikazioa.

B.– Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazio tekniko-ekonomikoa

- a) Egindako inbertsioaren justifikazio-fakturak (jatorrizko kopiak), partidaka banatuta eta 2025eko apirilaren 1etik aurrera datatuak. Fakturak onuradun izaera daukanak jaulki behar ditu, 2.1 oinarrian adierazten den moduan.
- b) Ibilgailuaren salerosketa-fakturaren ordainketaren egiaztagiria, 2025eko apirilaren 1etik aurrera datatuak. Baliozkotzat jotzen diren honako hauek identifikatzea ahalbidetzen duten ordainketa-egiaztagiria:
 - a) Azken hartzailea, argi geratu behar du ordaintzaile bakarra laguntzaren eskatzailea dela, zuzeneko ordainketaren edo haren izenean egindako ordainketaren bidez (dagokion dokumentu-egiaztapenaren bidez).
 - b) Ordaindutako diru-kopuruak jasotzen dituen hirugarrena erakunde saltzailea.
 - c) Ordainketa-data (balio-data) edo laguntzaren azken hartzailearen funtsen benetako irteera.
 - d) Dirulaguntzaren xede den ibilgailua.
- c) **Erositako ibilgailuaren** fitxa teknikoaren edo IAT txartelaren kopia, non argi eta garbi identifikatuko diren CO2 emisioak.
- d) **Txatar bihurtutako ibilgailuaren** fitxa teknikoaren edo IAT txartelaren kopia, non argi eta garbi identifikatuko diren CO2 emisioak.
- e) Erositako ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia, edo Trafiko Zuzendaritza Nagusiak emandako behin-behineko Zirkulazio Baimenaren kopia. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, ibilgailuaren zirkulazio-baimenari dagokion informazioa.
- f) Txatar bihurtutako ibilgailuaren dokumentazioari dagokionez, honako hauek aurkeztu beharko dira:
 - a) Ibilgailuaren behin betiko baja egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia, Ibilgailuen Tratamendurako Baimendutako Zentroak (TBZ) Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren izenean jaulkitakoa, edo bestela, dagokion Trafikoko Buruzagitza Probintzialaren Ibilgailuen Erregistro Orokorren txostena, behin betiko baja egiaztatzen duena.
 - b) Ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia, non lehen matrikulazioaren data, Espainiako matrikulazio-data eta emate-data adieraziko diren. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, ibilgailuaren zirkulazio-baimenari dagokion informazioa.



- c) Behar bezala ordaindutako txatar bihurtutako ibilgailuaren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren ordainagiriaren kopia.
- g) Eskuratutako ibilgailua erakusketarakoa baldin bada:
- o Aurreko zirkulazio-baimena, kontzesionarioaren edo salmenta-gunearen izenean.
 - o Entitate saltzaileak edo haren lege-ordezkariek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, ibilgailuak aldez aurretik dirulaguntzarik jaso ez duela adierazten duena.

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.